

Literatura eta biktimak

Euskal Herrian indarkeria politikoak eragindako biktimen inguruko gogoeta egiteko literatura tailerra antolatu du Irene Gantxegik

Liburuak aizkora izan behar du; gure baitan daramagun izotzezko itsasoa hautsiko duen aizkora' esaten zuen Kafkak, eta iritzirik berekoa da Irene Gantxegi Madina (Oñati, 1988). Literaturak ikuspuntu kritikoa eta iritzirik propioa garatzen laguntzen duela uste du berak. Horregatik, literatura tailerra antolatu du, udal liburutegiaren laguntzarekin, fikziotik abiatuta, Euskal Herrian biktima ezberdinek pairatutako biolentziaren inguruko irakurketa kritikoa egiteko.

Azken 50 urteetan biolentzia politikoak Euskal Herrian sortutako biktimen inguruko gogoeta egiteko literatura tailerra antolatu duzu. Zein da helburua?

Biktima desberdinak aitortzea; ETak eragindakoak, eskuin muturreko taldeek eta Segurtasun Indarrek sortutakoak... Biktimak jasandako minaren dimentsiora hurbilduz, indarkeria ikuspuntu kritiko batetik aztertzea da helburua. Eta horretarako literatura lagungarria dela uste dut.

Zergatik literatura, biktimen inguruko gogoeta egiteko?

Kafkak zioen bezala, "liburuak aizkora izan behar du; gure baitan daramagun izotzezko itsasoa hautsiko duen aizkora". Uste dut oso ondo definitzen duela liburu baten irakurketak guran eragin dezakeena.

Nobelek izen-abizenak dituzten gizaki konkretuei gertatutakoa xehetasunez kontatzen digute, eta horrek bidea ematen digu pertsonaiekin enpatizatu eta identifikatzeko. Geu egoera berdinean egongo bagina, zer egingo genukeen pentsatzen hasten gara, eta horrela, imajinazioaren bidez, irakurlea hausnarketa sakon bat eta iritzirik propio bat eratzen hasten da.

Uste dut imajinazioa oso

IZEN EMATEA

Azaroaren 11a baino lehen eman behar da izena udal liburutegian

beharrezkoa dela etorkizun hobe bat irudikatzeko, eta literaturak irudimena elikatzen laguntzen digu.

Tailerrean irakurriko ditugun nobeletako pertsonaiak jatorri ezberdineko biktimak dira. Istorioak fikziozkoak izan arren, gure gizartean jazotako gertakari ankerren adibide dira, eta liburu hauen irakurketak bake kulturaren sustapenerako ekarpen garrantzitsua egin dezakeela uste dut. Iraganean gertatutakoa ikuspuntu kritiko batetik aztertzen eta interpretatzen lagundu dezake.

Biktimei zor zaien aitortza da, hain zuzen, Euskal Herriko bake prozesuaren ardatzetako bat. Ildo horretan, egokia izan daiteke era honetako tailer bat. Jakina. Bizi dugun momentu



LITERATURA TAILERRA

"Bi nobela irakurriko ditugu; protagonistak -hainbat jatorritakoak- biktimak dira. Ondoren, liburu bakoitzeko bi saio egongo ditugu, gogoeta egin eta eztabaidatzeko"

R.P. 5.47/15

ANTSIETATEA
ESTRESA
FIBROMIALGIA
DEPRESIOA...

Psicologia Zentroa
ROSA RUEDA

Zubillaga Auzoa, 20

943 04 74 06
psicologia-rrueda@cop.es
www.psicologjarosarueda.com

Amaia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-Igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera lizentziak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

historiko honetan uste dut oso inportantea dela gogoeta kritiko egitea. Iraganean gertatutakoa ulertu behar dugu, etorkizunean errepika ez dadin, eta literaturak (imajinazioak) paper inportantea dauka horretan.

Zein izango da tailerraren dinamika?

Bi hilabete iraungo du, gutxi gora behera. Nik proposatutako bi nobela irakurriko ditugu, eta liburu bakoitzeko bi saio egingo ditugu, irakurritakoaz gogoeta egin eta eztabaidatzeko.

Partaide bakoitzak diario edo egunkari moduko bat izango du, irakurketa prozesuan eta solasaldietan izandako gogoetak bertan idazteko. Saiok grabatu egingo ditut, bertan partekatutako iritziak eta hausnarketak aztertu eta ondorioak ateratzeko. Lantzen ditugun liburuek duten inplikazio etikoa aztertu nahi dut.

Lehenago ere egin duzu era honetako beste tailer bat, ezta?

Bai. Filosofia ikasketak amaitu ostean, doktorego tesia egiten hasi nintzen etika eta literaturaren arteko harremana aztertzeko. Zehazki, Euskal Herriko biolentzia politikoari buruzko nobelen irakurketak biktimen aitortzan laguntzen ote duen aztertu dut, eta horretarako literatura tailer bat antolatu nuen Bilbon. Lau nobela irakurri genituen gazteleraz eta oso aberasgarria izan zen.

Eta orain ekimen hau Oñati-
ra ekartzea pentsatu dut. Ilusio berezia egiten dit era honetako tailer bat nire herrian egitea, eta euskaraz.

Nori dago zuzenduta tailerra?

Irekia da. Gustatuko litzaidake jende gazteak parte hartzea, eta baita jende helduak ere. Oso modu ezberdinean bizi izan dute gure herriak jasan duen biolentzia 60 urteko gizon-emakumeek eta 18 urteko gazteek. Seguru nago nobelaren harrera oso ezberdina izango dela, eta hor sor daitekeen elkarrizketa oso interesgarria izango dela. Adin, ideologia eta iritzi desberdineko jendea elkartzea gustatuko litzaidake.

Literatur fikziotik abiatuz, biktima desberdinek pairatu duten biolentziaren irakurketa kritikoa egiteko interesa duen edonori zuzenduta dago ekimen hau. Iritziak partekatu eta irakur-esperientzia handitzeko gogoia duten guztiei

Euskaraz izango da tailerra?

Bai, baina ekintza honekin jarraitzeko interesa eta gogoia baldin badago, prest egongo nintzateke aurrerago gazteleraz egiteko beste tailer bat.


Non eman behar da izena?

Udal liburutegian, azaroaren 11 baino lehen. Liburutegian bertan egingo dugu tailerra.

“Nobela hauen irakurketak bake kulturaren sustapenerako ekarpen garrantzitsua egin dezakeela uste dut. Iraganean geratutakoa ikuspuntu kritiko batetik aztertzen eta interpretatzen lagundu dezake”



Irene Gantxegi Madina



Bizigiro >

ATZEKOZ AURRERA. IRENE GANTXEGI. FILOSOFIA

«Kalte bidegabea pairatu duen pertsona oro da biktima»

Literaturak euskal gatazka politikoko biktima guztiak aitortzeko balio izan dezakeen aztertu du Irene Gantxegik bere doktore tesian. Teoria praktikan jartzeko tailerra antolatu du Oñatin.



(http://www.berria.eus/argazkiak_papera/BERRIA/d20161116/p032_f01.jpg)

2016-11-16 / Beñat Alberdi (http://www.berria.eus/egilea/benat_alberdi)

Literaturaren eta biktimen arteko harremana aztertu du Irene Gantxegik (Oñati, 1988). Zehazki, euskal literaturaren irakurketak biktimak aitortzeko balio dezakeen. Filosofia ikasketak bukatuta, azterketari ekin zion doktore tesia garatzeko. Teorikoki lantzen zebilen gaia, ordea. Paperean idatzitako ideiak kontrastatzeko, praktikara jo du. Bilbon egin zuen lehen saioa. Orain, berriz, literatur tailerra egingo du Oñatiko kultur etxean (Gipuzkoa). Fikziotik abiatuz, azken 50 urteetan Euskal Herrian indarkeria politikoak eragindako biktimen inguruko gogoeta kritiko bat egingo dute parte hartzaileek.

Literatura eta biktimak tailerra hasiko duzu. Zer dela-eta erabiliko duzue literatura gai horri heltzeko?

Biolentzia politikoak sortutako eskubide urraketa guztien analisi objektibo bat egitea beharrezkoa da. Baina uste dut literatura osagarri baliotsua dela istorio konkretuetara hurbiltzeko eta horiek hobeto ulertzeko.

Zergatik da osagarri baliotsua?

Literaturak bizipen pertsonaletara hurbildu gaitzake; izen-abizenak dituzten gizaki konkretuei gertatutakoa xehetasunez kontatzen duelako. Horrek bidea eman dezake pertsonaiekin identifikatzeko.

Erraztu egiten du eztabaida?

Baietz uste dut. Irakurriko ditugun istorioak fikziozkoak izan arren, gure gizartean jazotako gertakari ankerren adibide dira. Liburu hauen irakurketak eta eztabaidak gure gizartean gertatutakoa kritikoki interpretatzen lagun dezakete.

Literaturako biktimgana hurbiltzeko aukera ematen duela diozu. Baina nor da biktima?

Nik lan hau perspektiba etiko batean oinarritzen dut: kalte bidegabea pairatu duen pertsona oro da biktima. Beraz, errugabea.

Nola egingo dituzue tailerrak?

Bi eleberri irakurriko ditugu euskaraz. Parte hartzaile bakoitzak eguneroko bat izango du. Bertan, irakurketak sortzen dizkion lehen erreakzio espontaneoak idatziko ditu: gogoetak, sentimenduak, pentsamenduak eta abar. Bestalde, taldeko saioetan, irakurritakoaren inguruan hainbat gogoeta egongo dira. Interesgarria da aztertzea zer kontraste sortzen diren bakarkako irakurketatik ateratakoak taldean banatutakoan.

Jatorri ezberdineko biktimen literatur testigantzak erabiliko dituzue. Zer ekarpen egiten du horrek?

Haiek jasandako indarkeria ikuspuntu kritiko batetik aztertzea da helburua; biktima desberdinak aitortzea, biktimak pairatutako sufrimendu bidegabera hurbilduz.

Euskal gizartea polarizatuta dagoela esan ohi da. Igartzen da tailerretan?

Ez nuke hainbeste esango. Aurretik egin nuen tallerrean sorpresak egon izan dira liburuak irakurtzean jendeak izan dituen erreakzioekin. Nork bere aurreiritzi eta esperientzietatik egiten du analisia. Baina gertatu ohi da espero ez zuten pertsonaiekin identifikatuta sentitzea, eta alderantziz.

Gai korapilatsua izaki, elkarrizketak erraz sortzen dira?

Jendeak gai honen inguruan hitz egiteko gogoia duela esango nuke.

Horrela ikusi nuen aurreko esperientzian. Onatin egungo dudak literatur tailerrak izan duen harrera ona ikusita, jendeak interesa duela ematen du.

Garrantzirik ba al dauka parte hartzaileen profila?

Tailerra irekia da. Baina interesgarria izango litzateke adin eta genero aldetik denetik egotea. Oso modu ezberdinean bizi izan dute jende gazteak eta aurreko belaunaldikoeak. Bizipenak desberdinak direnez, nobela irakurtzean izaten diren erreakzioak ez dira berdinak. Erreakzio horien arteko kontrastea aztertzea gustatuko litzaidake.

0 iruzkin **Berria** Saioa hasi

Gomendatu Partekatu Berrietik hasita



Hasi eztabaida...

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu Gehitu Disqus zure webgunera Gehitu Disqus Gehitu Pribatasuna

Informazio osagarria

LOTSABAKO (<http://www.berria.eus/paperekoa/1770/032/1845/2016-11-16/lotsabako.htm>)

Gaiarekin zerikusia duten albisteak

Berria.eus - Euskal Editorea S.L.
Telefonoa: 943 304 030 • Faxa: 943 590 172
Helbide elektronikoak: Webgunea: webgunea@berria.eus | Publizitatea: publizitatea@berria.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

Lege Informazioa (<http://www.berria.eus/legeinformazioa/>)
Pribatasun politika (<http://www.berria.eus/legeinformazioa/privatasun-politika/>)
Cookieak (<http://www.berria.eus/legeinformazioa/cookieak/>)
Publizitatea (<http://www.berria.eus/publizitatea/>)



zerbitzua eta lana euskaraz



Gipuzkoako Foru Aldundia

(<http://www.gipuzkoa.net>)

berria
taldea

berria bidera zerbitzuak HITZA Mauka BADOK
IRIN LASUNK Hamalka iragarkilaburrak.com ALEA

noticias de Gipuzkoa

IRENE GANTXEGI; LICENCIADA EN FILOSOFÍA

"La literatura es una herramienta muy valiosa para abordar la perspectiva de las víctimas de la violencia"

Domingo, 20 de Noviembre de 2016 - Actualizado a las 09:50h



Anabel Dominguez oñati– Antes de desgranar los detalles del taller que va a impartir, cuéntenos qué le ha motivado centrar su tesis doctoral –es licenciada en Filosofía– en las víctimas que ha generado la violencia política en Euskal Herria desde el punto de vista de la literatura; en cómo han sido recogidas en la narrativa.

–Mi tesis parte de la necesidad de hacer una reflexión crítica de las consecuencias de la violencia de intencionalidad política que ha padecido nuestra sociedad durante más de 50 años de conflictividad. Teniendo en cuenta que el horizonte último es la deslegitimación de la violencia, creo que

debemos fijarnos en los más afectados: las víctimas. Realizo mi tesis doctoral en el Centro de Ética Aplicada de la Universidad de Deusto, y una de las características principales del pensamiento que desarrollamos es tomar como eje referencial a las víctimas, a los injustamente tratados, porque asumir su perspectiva permite conocer parte de la realidad que sin ellas sería inaccesible. Yo me propuse acercarme a su realidad desde la ficción narrativa; considero que la literatura puede cultivar la sensibilidad de la persona, acercándola al sufrimiento injusto que padecen las víctimas.

¿Cuáles son los objetivos del taller que ha puesto en marcha?

–El objetivo es analizar si la lectura de narrativas literarias que tratan el tema de la violencia política contribuye o permite al lector reconocer a las distintas víctimas protagonistas de la historia. Desde la perspectiva ética hay algo universal a todas ellas, y es que todas han padecido un sufrimiento injusto e inmerecido. Esta definición no ignora que haya que cuidar y atender las especificidades de cada caso concreto, pero evita hacer comparaciones y jerarquizaciones.

¿Nos referimos a todas las víctimas?

–Los protagonistas de las novelas son diversas víctimas de intencionalidad política: de la violencia ejercida por ETA, la de los grupos terroristas que han actuado contra ella, y la de las violaciones de derechos humanos por parte de las fuerzas de seguridad en su lucha contra ETA; pero todas ellas tienen en común la vulneración de derechos humanos que han padecido. El objetivo, por lo tanto, es analizar si la lectura y el trabajo de estas historias concretas genera un reconocimiento de todas las víctimas. Considero que la literatura es una herramienta muy valiosa para abordar la perspectiva de las víctimas, porque las historias concretas, llenas de matices, nos ayudan a imaginar situaciones distintas a la propia, pero que por el grado de detalle que ofrecen permite al lector acercarse y empatizar con la situación del otro. La literatura puede ayudar a sacarnos de la indiferencia porque cuestiona algunas de nuestras ideas preconcebidas.

¿Qué dinámica va a emplear en las distintas sesiones? (son en euskera)

–Vamos a leer dos novelas de autores vascos escritas en euskera, y a cada una le dedicaremos dos sesiones de dos horas. La primera de ellas es Bizia Lo, de Jokin Muñoz (traducida al castellano bajo el título Letargo), que tendrá que estar leída para el día 30 de este mes. En este caso, la segunda cita será el 14 de diciembre. El segundo libro lo elegiremos más adelante. Cada participante contará con un diario individual para ir anotando sus reflexiones y luego, en grupo, habrá un diálogo en torno a las víctimas representadas en las historias. Grabaré todos los encuentros para analizarlos.

¿A quién está dirigido?

–A todas aquellas personas que estén interesadas en conocer y reflexionar sobre las víctimas de intencionalidad política representadas en diversas novelas de autores vascos. Creo interesante que participen personas de distintas generaciones e ideologías para ver los contrastes que surgen.

Atesora la experiencia del taller que hace dos años coordinó en Bilbao. Ahora da el salto a un pueblo, al suyo propio: Oñati. ¿Se esperaba la acogida que ha tenido la iniciativa?

–Estoy muy contenta con la acogida. –se han inscrito 19 personas–. Dinamizar las sesiones supone un reto porque el tema es muy complejo y delicado. Pero tengo la sensación, y es algo que constaté en el taller anterior, de que la gente

tiene ganas y siente la necesidad de hablar sobre este tema. Creo que aún no hemos meditado lo suficiente en torno a las víctimas que ha generado la violencia y que la lectura de estas novelas, junto con el diálogo en grupo, ofrece una oportunidad, un contexto para empezar a conversar abiertamente y de forma crítica. Pienso que abordar este tema desde la ficción puede facilitar un diálogo empático con la víctima, porque aunque sean historias de ficción están inspiradas en acontecimientos reales que se dieron en la sociedad vasca, y ello nos ofrece un contexto que propicia abordar el tema del reconocimiento de la víctima.

Habla del reconocimiento a las víctimas, uno de los puntos del proceso de paz. ¿Qué papel puede desempeñar en esta línea un taller de estas características?

–Este taller, al igual que el que desarrollé en Bilbao, son experiencias concretas, con un número de participantes reducido y en un contexto particular, por lo que no creo que se puedan extraer conclusiones generalizables o extrapolables al resto de la sociedad. Pero la buena acogida que han tenido muestra que la gente tiene ganas o siente la necesidad de saber más sobre este tema, y también de conversar y compartir su opinión. En ese sentido, creo que toda iniciativa que invite a salir de la indiferencia y contribuya a generar un diálogo crítico que asuma la perspectiva de las víctimas, puede ser muy positivo para la convivencia pacífica.

¿Qué cree que puede aportarle a los participantes esta reflexión?

–En primer lugar, a nivel individual, leer diferentes historias de víctimas puede ampliar el conocimiento que las personas pueden tener sobre este tema. Acercarse a perspectivas distintas a la propia puede ayudar a comprender las consecuencias de la violencia, no para justificar sino para entender la complejidad de lo que ha acontecido en más de 50 años de violencia política en nuestro entorno. Y en segundo lugar, como esa lectura personal se combina con el diálogo en grupo, también pienso que compartir visiones diferentes puede contribuir a generar un cuestionamiento de las posiciones propias, no necesariamente para transformarlas, sino para repensarlas, hacer autocrítica.

¿Tiene pensado promover más encuentros de este tipo?

–Me gustaría mucho seguir con esta iniciativa en un futuro, tanto con novelas escritas en euskera como en castellano. Hay un centenar de novelas vascas que han tratado el tema de la violencia acontecida en el País Vasco, y creo que trabajar la literatura local producida en un contexto conflictivo como ha sido el nuestro tiene posibilidades de calar en la ciudadanía, porque puede ser más cercana a las costumbres de la población, a sus principios y preocupaciones. Esto no solo puede ayudar a que la sociedad acceda a conocer historias particulares, sino que también facilita que se interese por las consecuencias de la violencia en su entorno más cercano.

“Biktimenganako izandako jarrerak aztertu eta autokritika egitea ezinbestekoa da”

IRENE GANTXEGI FILOSOFOA

Literatura baliau du Irene Gantxegi oñatiarrak Euskal Herrian azken hamarkadetan gatazka armatuak utzitako biktimengana hurbildu eta horiek ulertzeko tresna gisa. Jaioterrian egin du literaturaren eta biktimen arteko harremana aztertzekeo tailerra. Testua: **Miren Arregi**. Argazkiak: **Miren Arregi**.

Euskal literaturaren eta biktimen arteko harremana aztertu du Irene Gantxegi (1988) oñatiarrak doktore-tesian. Filosofia ikasketak bukatuta, euskal literaturaren irakurketak biktima guztiak aitortzeko tresna gisa balio dezakeen aztertzekei ekin zion. Paperean idatzitakoak osatzeko asmoz, gaia praktikan lantzerantz animatu da Gantxegi; Bilbon egin zuen lehen tailerra eta Oñatin egin du bigarrena.

Biolentziak biktima ugari utzi ditu Euskal Herrian azken hamarkadetan. Nola bururatu zitzaizun biktimen sufrimendura hurbiltzeko literatura tresna bezala hartzea?

Literatura gai korapilatsu eta mingarrietara hurbiltzeko eta haiek ulertzeko tresna izan da beti. Istorioek norberaren errealitatek urrundu eta beste gizakien baitan ikertzen laguntzen digute. Kasu honetan, biktimak dira fikziozko istorio hauen protagonistak eta haiek pairatutako sufrimendu bidegabera hurbiltzeak jasandako giza eskubideen uraketaren inguruan hausnartzen lagundu dezakeela uste dut. Indarkeria salatzen, hain zuzen. **Zergatik deritzozu interesgarri lanketa modu horretan egiteari?**

Fikzioak baduelako gure barnea astintzeko gaitasuna. Batez ere, alderdi emozionala da literaturak mugitzen duena. Eta gai hau lantzeko, hau da, biktimaren sufrimendu bidegabera aitortzeko, sufrimendu horrek –batez ere, ezezaguna edo urrinekoa dena– ukitu egin behar gaitu. Literaturak beste pertsona batzuen bizipenak kontatzen dizkigun arren, azkenean, gure oraingo egoerara eramaten gaitu eta horrek geure buruari galdera berriak egitera eramaten gaitu.

Literaturaren gaia hartuta, gatazka armatuaren ondoren aztertzen dituzten liburuak ugari ari dira agertzen gurean; hor dago Fernando Aranbururen *Patria* edo Edurne Portelaren *El eco de los disparos*. Nola ulertzen duzu hori?

Nire ustez, literaturak konplexutasuna eskaintzen du, eta, hemen gertatu zaiguna ulertu eta kritikoki aztertu nahi badugu, ezinbestekoa da ñabardura edo xehetasunetan murgiltzea. Zentzu horretan, zenbat eta istorio gehiago argitaratu, ekarpena orduan eta handiagoa izango da. Istorio pluralek gaia hobeto ulertzen lagunduko digutelakoan nago.

Erdal mundutik, euskal gizarteak biktimen sufrimenduaren gaia isilarazi nahi duela egotzen da sarri. Zein da zure iritzia?

Euskal literaturak biktimei eman dien isla oso eztabaidatua izan den gaia da. Badirudi hizkuntza –



euskaraz idaztea edo gazteleraz idaztea– biktimen gaira gerturatzeko orduan elementu bereizgarri bat dela. Euskaraz idatzitako nobela gehienetan protagonistak ETaren indarkeria eragiten duten pertsonak dira eta ez dute ETak eragindako biktimen ikuspunturik jasotzen, ia inoiz. Nola ez, badira salbuespenak; Mikel Hernandez Abaituaren *Etorriko haiz nirekin?* edo Anjel Lertxundiren *Zorion perfektua* dira horietako bi. Gazteleraz idatzitakoekin kontrako gertatu ohi da, gehienetan ETaren biktimetan zentratu dira eta ez dituzte segurtasun indarrek edo Estatuaren izenean talde parapolizialak eta eskuin muturreko indarkeriak sortutako biktimen istorioak jasotzen.

Tabua izan da gizartean zintzoki biktimez berba egitea? Eta orain? Gauzak aldatu dira?

Gure gizarteak biktimenganako izan duen jarrera ezberdina izan dela esango nuke. Tamalez, duela gutxira arte, biktimei dagokienez axolagabetasun handia egon dela uste dut. Bestalde, konparaketa asko egin ohi dira, biktima batzuk aitortuz eta beste batzuk ukatuz. Orokorrean, biktimenganako elkarkidetasun jarrerak gutxieneoak izan dira. Hau kontuan hartuta, esango nuke biktimen ikusgarritasuna azken bi hamarkadetan asko handitu dela, eta euren eskubideak bermatzea bake eta bizikidetzaren alorrean egun kezka garrantzitsuenetako bat da.

Esan izan da, baita ere, euskaraz idazten duten idazleek ez dutela nahi izan gaiarekin konprometitu. Jasotzen dituzten diru laguntzen esklabo izateari egozten zion Fernando Aranburuk.

Lehen esan bezala, badira biktimen sufrimenduz euskaraz idatzi duten idazleak; batzuk orain dela 25 urte hasi ziren jatorri ezberdineko biktimek jazotako indarkeria salatzen.

Zuk, hain zuzen, euskarazko idazleen ikuspegia, edo ekoizpena, begi-bistara atera nahi izan duzu, eta hortik abiatu dituzu zure tailerrak. Zergatik? Nire interesa indarkeria politikoaren biktimen gaia euskal literaturan nola islatu edo landu den aztertzea izan da, liburu horien irakurketak biktima desberdinak aitortu eta haiek jasan duten indarkeriaren ikuspuntu kritiko bat garatzen lagun dezaketen ikusteko. Nire doktore-tesirako gidatu nuen tailerra gazteleraz izan zen arren –tesia gazteleraz egin dudalako eta parte-hartzaile guztiak euskaraz ez zekitelako–, bertan irakurri genituen hiru liburu jatorriz euskaraz idatzita zeuden. Tailerrean, gaztelerara itzulitako bertsioak irakurri genituen.

Bilbon egin dituzu eta Oñatin izan da azkena. Zein inpresio atera duzu?

Bilbon egin nuen tailerra nire tesirako izan zen eta bigarrena, Oñatin egindakoa, gai honetan sakontzen

jarraitzeko helburuarekin burutu nuen. Pozik nago izan duen harrerarekin; izan ere, uste nuena baino jende gehiago apuntatu da nire jaioterrian. Gaia ikuspuntu etikotik lantzea proposatzen dut, eta hori, batzuetan, zaila da, biktima guztiak komunean dutena lantzen saiatu ginelako. Gaia konplexua den arren, adin, sentsibilitate, bizipen eta ideologia ezberdineko jendea talde baten bildu, gogoetak partekatu eta besteen iritziak entzuteko prest eta gogotsu dagoela ikustea oso aberasgarria izan da niretzat.

Alderik nabarmentzen al da herri txiki euskaldun baten eta hiri handi nagusiki erdaldun baten artean tailerren asistentzia eta ondorioei dagokienez?

Tailerak nahiko ezberdinak izan dira. Esan bezala, Bilbokoa nire tesi lanerako izan zen; beraz, askoz luzeagoa denboran. Hori dela eta, gehiago sakontzeko aukera izan genuen. Jendeak izan duen parte-hartzea, orokorrean, oso handia izan da. Oso eskuzabalak izan dira, saioetako solasaldiez gain, egunkari pertsonaletan idatzitakoetatik abiatuz, ekarpen handia egiten baitute. Ondorioei dagokienez, oraindik azken tailerretik ateratakoa aztertzen nabil. Baina nabaria dena da jendeak gai honen inguruan hitz egiteko ardura eta gogoa baduela eta mota honetako esperientziak errepikatzea positiboa izan daitekeela. Neuk gai honetara ikuspuntu artistikotik hurbiltzea proposatzen dut; izan ere, azken finean, artea guztiok atsegin dugun zerbait da. Berdin ari naiz, nobelaz, zein zineaz, antzerkiaz, eta abar. Begirada artistikoak galdera berriak planteatzen laguntzen digu, eta, kasu honetan, gaiztakeriaren aurrean hunkitzen laguntzen digu.

Urte batzuk daramatzazu honen inguruan hausnartzen. Diferentziarik nabaritu al duzu tarte honetan? Jarrera berak al ditugu euskaldunok biktimen inguruan duela bost urte eta gaur egun? Esan beharra dut nik egin ditudan tailerrak esperientzia konkretuak direla eta ez nuke horietatik gizarte osorako baliagarriak diren ondorio orokorrak aterako. Bai esan dezakedana da gaur egun biktimak iraganean baino presenteago, ikusgarriago direla. Horrek ez du esan gura biktima guztiak aitortzen ditugunik.

Adinen araberako desberdintasunik igarriko da, ezta? Esan gura dut gazteek, nerabeek eta helduek ez dutela gatazka armatua berdin bizi izan, eta hori igarriko da saioetan.

Bai, begirada desberdina da, halabeharrez. Orokorrean, helduek indarkeria hurbilago bizi izan dute eta irakurri genituen istorioak gazteei baino ezagunagoak egiten zitzaizkien. Hor arriskua izaten da batzuetan helduek indarkeria normalizatua izaten dutela. Gazteen artean aldiz arriskua



“SUFRIMENDU BIDEGABEA PAIRATU DUEN PERTSONA DA BIKTIMA”

“LITERATURA GAI KORAPILATSUETARA HURBILTZEKO TRESNA IZAN DA BETI”

“DUELA GUTXIRA ARTE, BIKTIMEI DAGOKIENEZ AXOLAGABETASUN HANDIA EGON DA”

Tailerreko parte hartzaileak Oñatiko Kultur Etxean.

21. orrialdean, Irene Gantxegi.

ezjakintasunetik etor daiteke; hau da, gertatutakoaren berri ez baldin badute, biktimak ezkutatuta geratzen dira. Horregatik ikusten dut garrantzitsua belaunaldien arteko elkarrizketa, batzuek besteei indarkeria normalizatzen duten jarreretatik edo axolagabekeria horretatik ateratzen lagun diezaiekeelako.

Biktimen gaira bueltatuta, pentsatzen dut eztabaida sakonena piztuko direla biktimaren kontzeptuaren inguruan, ala? Beste era batera esanda, nortzuk onartu beharko genituzke biolentzia politikoaren biktima bezala? Eta gatazkaren biktima bezala? Ba al dago desberdintasunik?

Indarkeria politikoak sortutako biktimen gaia begirada etikotik aztertu dut nik. Esango nuke sufrimendu bidegabea pairatu duen pertsona dela biktima eta, beraz, biktima egoera horrekiko errugabea. Etikoki garbi definitutako kontzeptu hau korapilatu egin daiteke sufrimendu bidegabea zer den definitzen hasten garenean.

Zer esan gura duzu kontzeptua korapilatu egin daitekeela diozunean?

Horrekin esan gura dudana da ez dela erraza ados jartzea sufrimendu bidegabea zer den eztabaidatzen hasten garenean. Zein ekintza dira bidegabeak eta zein ez? Hor dago koska.

Biktima guztiak berdin, enpatia sentitzeko jarrerak ikusten al dituzu?

Oso zaila da guztien aurrean jarrera bera izatea. Nire helburua ez da hori izan, biktima guztiak merezi duten edo eman beharko geniekeen aitormenera hurbiltzea baizik.

Orainsu, Nafarroan eskuin muturreko biolentziaren biktimei egin nahi zaien omenaldiak alderdien arteko sua piztu du berritua. Ez al dago biktimen erabilpen politiko interesatu bat honen guztiaren atzean?

Eskubideen urraketa bat egon denean bidegabekeria hori salatu egin behar da eta biktimen aitormena ez litzateke erabilpen politikoetarako erabili behar.

Nola aurreikusten du gaiaz arduratu den pertsona batek biktimen gaineko eztabaida gainditua? Alegia, aitortza eskaini eta gizartean pitzadurarik gabeko adostasun egoera batera iristea? Denbora kontua al da? Jarrerak malgutu behar izango al ditugu?

Erronkaz betetako bidea da eta nik ez nuke esango bakarrik denbora kontua denik, aurrerapausorik eman gabe denbora luzea pasa daiteke eta. Ezinbestekoa iruditzen zait lehenengo norberak iraganean biktimengana izandako jarrerak aztertu, baloratu eta haien autokritika bat egitea. Ariketa hori errazteko, gai honetara hurbiltzeko aukera emango diguten jarduerak edo ekintzak bermatu eta antolatzea garrantzi handikoa ikusten dut. ■■■